



“AÑARBeko BANDERA” ESTROPADA ARAUTZEKO OINARRIAK

(Emakumezkoen eta gizonezkoan kategoriak)

Lehenengoa.- “Añarbeko Bandera”-ren xedea

1.1. Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SAK (AUSA, aurrerantzean) “Añarbeko Bandera” izeneko estropada antolatuko du Añarbeko Uren Mankomunitatearen 50. urteurrena ospatzeko.

1.2. Estropadak bi proba izango ditu, emakumezkoen eta gizonezkoen kategorietan:

- Lehenengo proba “erlojupekoa” izango da.
- Amaierako estropada, “sprint” modalitatean, bi txandatan egingo da: sailkapen txanda eta finala.

1.3. AUSA izango da bozeramaile bakarra hirugarrenen aurrean, estropadan edozein gorabehera gertatuz gero.

Bigarrena.- Lekua eta eguna

2.1. Estropada Donostian egingo da, maiatzaren 12an, arratsaldeko 17:00etan. Zehazki, Urumea ibaian jokatu da, Mundaiz eta Maria Cristina zubien artean.

2.2. Eguraldiak edo beste arrazoi batek estropada bertan behera uztera behartuko balu, AUSAk erabakiko du zer egunetan eta orduetan egin estropada.

Hirugarrena.- Izen-ematea

3.1. Estropadan izena emateko eskaerak aurrez aurre aurkeztuko dira -8.00etatik 14.00etara-, AUSAren bulegoetan (Errotaburu 1, 6. solairua, Donostia), edo posta elektronikoz (oficinas@agasa.eus). Bi kasuetan, 2018ko maiatzaren 4a baino lehen. Oinarriei erantsitako inprimakia bete beharko da.

3.2. Gipuzkoako arraun elkarteek parte hartu ahal izango dute, emakumezkoen eta gizonezkoen kategorietan.

3.3. Arraun taldeek traineru banarekin parte hartu ahal izango dute kategorია bakoitzean (emakumezkoak eta gizonezkoak). Traineru bakoitzak hamalau arraunlari izango ditu (hamahiru arraunlari eta patroia), eta denek izan beharko dute federazio lizentzia.

3.4. Izen ematea egintzat hartuko da AUSAk eskaera onartu duela adierazten dionean eskatzaileari



3.5. Estropada egiteko, gutxienez sei taldek eman beharko dute izena kategoria bakoitzean.

3.6. Estropadan izena emateak esan nahi du oinarriak onartzen direla; bereziki, hamabigarren oinarrian ezarritako arauak.

Laugarrena.- Lehiaketa Batzordea

4.1. Lehiaketa Batzordea Gipuzkoako Arraun Federazioko bi kidek osatuko dute (Federazioko zuzendaritzako kideak izango direnak).

4.2. Ezin izango dira batzordeko kide izan estropadan parte hartzen duten klubetako zuzendariak.

4.3. Lehiaketa batzordearen eginkizunak izango dira:

- Estropadako epaimahaia osatuko duten epaileak izendatzea (bosgarren oinarria).
- Estropadaren kirol kontrolerako baliabide materialak ipintzea (grabazio bideoa, telefonoak, megafonoak, kronometroak, ontziak pisatzeko baskulak, etab.).

Bosgarrena.- Epaimahaia

5.1. Epaimahaiaren eginkizuna izango da estropadan arau teknikoak eta kirol arlokoak betetzen direla ziurtatzea. Edozein gorabehera izanez gero, dagozkion erabakiak hartuko ditu, eta tripulazioek eginiko erreklamazioei erantzungo die.

5.2. Epaimahaiaren erabakiak, bere eskumenekoak diren gaietan, nahitaez eta berehala beteko dira.

5.3. Epaileek seinalizazio eta komunikazio elementu hauek erabiliko dituzte:

- Bandera zuria eta megafonoa: aginduak emateko arraunlariei.
- Bandera urdina: zigor ohartarazpen bat egiteko.
- Bandera gorria: irteera emateko eta txanda bat gelditu behar dela adierazteko.

5.4. Estropada amaitzean, epaimahaiak akta idatziko du, kirol emaitza, gorabeherak eta erreklamazioak jasoko dituena. Akta entregatuko zaio Lehiaketa Batzordeari.

Seigarrena.- Traineruak

6.1. Traineruek eta haien elementuek (pisuari, neurriei eta gainerako ezaugarriei dagokienez) arauak beteko dituzte, hamabigarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

Traineruaren elementuek (toleta, tosta eta toleterak izan ezik) zuntz eta erretxinaz guztiz zigilatuta egon beharko dute.



6.2. Estropada egunean, ontziak pisatu ahal daitezke, ontziratze eremuan ipiniko den baskulan.

6.3. Arraun elkarteek onartu egin beharko dute antolakuntzak erabakita beren ontzietan dagozkien elementu teknikoak ipintzea, estropadaren mesederako.

Zazpigarrena.- Lehen proba (erlojupekoa) eta amaierakoe sprinta

7.1. Estropadak bi proba izango ditu, emakumezkoen eta gizonezkoen kategorietan:

- Lehenengo proba "erlojupekoa" izango da.
- Amaierako estropada, "sprint" modalitatean, bi txandatan egingo da: sailkapen txanda eta finala.

7.2. Eerlojupeko probak 1.400 metro izango ditu gutxi gorabehera (700 metroko bi luze, ziboga bakar batekin), Mundaiz eta Maria Cristina zubien artean. Traineruak 60 segundoko tarteekin irtengo dira (gizonezkoak lehenbizi eta emakumezkoak ondoren), eta irteera ordena alderantzikoa izango da 2017ko denboraldian dagozkion kategorietan lortutako sailkapen orokorre dagokienez. Zehazki honako hau:

Gizonezkoak		Gizonezkoak		Emakumezkoak		Emakumezkoak	
1	Hondarribia	6	Zumaia	1	San Juan	6	Donostiarra
2	Orio	7	Getaria	2	Hibaika	7	Hondarribia
3	San Juan	8	Zarautz	3	Orio	8	Tolosa
4	San Pedro	9	Hibaika	4	Arraun		
5	Donostiarra	10	Mutriku	5	Hernani		

7.3. Eerlojupekoa amaitzean, esprint-ak jokatuko dira, 575 metroko luzeetan, Maria Cristina zubitik Mundaizko zubira.

7.4. Lehenik, sailkapen txanda bat jokatuko da kategoria bakoitzean (gizonezkoak eta emakumezkoak). Traineruak hiru multzotan arituko dira -gutxienez bi eta gehienez hiru-, erlojupekoan lortutako denboren arabera. Traineruak seitik gora badira, hurrengo sailkatuak multzoetan sartuko dira erlojupeko sailkapenaren arabera. Traineruak bederatzitik gora badira, erlojupeko hamargarren sailkatua kanpoan geldituko da.

Erlojupeko posizioa

1 multzoa	1	4	(7)
2 multzoa	2	5	(8)
3 multzoa	3	6	(9)

7.5. Multzo bakoitzeko irabazleak amaierako sprintean parte hartuko du, eta proba horren irabazlea izango da "Añarbeko Bandera" estropadaren irabazlea.

7.6. Traineruek esprinta jokatzekeo kalea aukeratu ahal izango dute, erlojupekoan



eginiko denboraren arabera (bai sailkapen esprintean bai finalean). Hala, denborarik onena egin duena izango da lehena kalea aukeratzen, eta horrela, hurrenez hurren.

7.7. Arraunlari bat lesionatu edo traineru baten elementu bat hausten bada erlojupekoari irteera eman eta hurrengo hogeitasegundoetan, hamar minutu emango dira gehienez kirolaria ordeztu edo trainerua konpontzeko. Arraunlaria ordeztuta edo konponketa eginda, trainerua azkena irtengo da proban.

Zortzigarrena.- Sarbideak eta logistika

Urumea ibaira sartzeko, aparkatzeko eta logistikako bi gune jarriko ditu antolakuntzak: Ur Kirolak SDN klubaren instalazioak, Egiako zubiaren ondoan, eta Mundaiz ikastetxeak, Mikel Laboa oinezko pasabidearen ondoan.

Izena eman ondoren, parte hartzaileei zer instalaziora joan behar duten adieraziko zaie.

Bederatzigarrena.- Dietak

Proban parte hartzen duen tripulazio bakoitzak 1.200 euroko dieta bat jaso dugu.

Hamargarrena.- Bandera eta sariak banatzea

10.1. Banderak estropada amaitzean banatuko dira, Mundaizko zubiaren ondoan.

10.2. Era berean, kategoriatan bakoitzaren irabazleek (gutxienez, bi arraunlari eta klubeko zuzendaritzaren ordezkari bat) banderaren bigarren banaketa "ofizialera" joateko konpromisoa hartzen dute, zeina Mankomunitatearen 50. urteurrenaren ospakizunen ekitaldi nagusian egingo den, 2018ko ekainaren 14an, 19:30ean, Tabakaleran.

10.3. Tripulazioek sari hauek jasoko dituzte:

Emakumezkoen kategorian:

- Lehen sailkatuak: 3.000 € eta "Añarbeko Bandera"
- Bigarren sailkatuak: 2.000 €
- Hirugarren sailkatuak: 1.000 €

Gizonezkoen kategorian:

- Lehen sailkatuak: 3.000 € eta "Añarbeko Bandera"
- Bigarren sailkatuak: 2.000 €
- Hirugarren sailkatuak: 1.000 €

Hamaikagarrena.- Erantzukizunak

Estropadan parte hartuko duten klubek, kirolariek eta gainerako pertsonak bere gain



hartzen dituzte borondatez jardueraren berezko arriskuak; AUSAk ez du bere gain erantzukizunik hartuko istripuren bat –proba baino lehen, hura egin bitartean eta gero– izanez gero, non eta AUSAri egotz dakiokkeen errua edo arduragabekeria ematen den.

Antolakuntzak larrialdi kasuetarako beharrezkoak diren salbamendu eta sorospen bitartekoak aurreikusiko ditu.

Hamabigarrena.- Araudia

12.1. Estropada egin bitartean, besteak beste, arau hauek aplikatuko dira:

- Oinarri hauek eta horiek betearazteko hartutako erabakiak.
- Arrauketako Euskal Federakundearen Estropaden Kodea.
- Arrauketako Euskal Federakundearen Diziiplina Araudia.

12.2. Aipatutako arauak aplikatuta, aintzat hartuko dira honako berezitasun hauek:

- Ibilbidean zehar, tarteko erreferentziako balizak jarriko dira. Hasierako erlojupekoan ababorrean utziko dira, eta esprinteko txandetan, kaleak mugatzeko erabiliko dira. Erlojupekoan, Maria Cristina zubiaren eskuineko baxo erabili beharko da joaneko luzean, eta ezkerrekoa, itzulerako luzean. (ikus erantsitako krokisa)
- Edozein ontzik egindako lehen irteera baliogabeak hiru segundoko zigorra jasoko du. Bigarren irteera baliogabeak deskalifikazioa eragingo du.

Hamahirugarrena.- Erreklamazioak

13.1. Proba bat zuzentasunez egin ez dela irizten dion tripulazioak erreklamazio bat jarri ahal izango du epaimahaiaren aurrean (probaren amaieran), aldez aurretik haren patroiak uretan inpugnazioa jarrita.

13.2. Erreklamazioa epaimahaiari entregatu beharko zaio, patroiak uretan egindako inpugnazioaren ondorengo 30 minututan, gehienez; eta, bertan, erreklamazioaren egitateak eta oinarriak adierazi, eta dena delako probak emango dira.

13.3. Epaimahaiak, erreklamazioa aztertu ondoren, erabakia jakinaraziko dio erreklamazio egileari, hura aurkeztu eta 30 minutura, gehienez.



Eranskina

Izena emateko eskaera

..... jaun/andreak, NAN zenbakidunak,
..... arraun elkarteko traineruaren ordezkari gisa,
eta helbidea:, "Añarbeko bandera" estropada
arautzeko oinarrien edukiaz jakitun izanik,

ESKATZEN DU:

"Añarbeko Bandera" estropadan parte hartzea

....., 2018koren(a).

Sin.: